



1. BEHOBIA-SAN SEBASTIAN 2015

Eragina trafikoa eta garraioa

Lasterketa behar bezala gauda dadin bermatu eta laguntzeko, azaroaren 8an (igandea) Errenteriako eremu handi batean eragina izango duten hainbat neurri hartuko dira.

09:30 eta 14:30 artean, Nafarroa hiribide osoa, Lartzabal biribilgunetik Kaputxinoetako tuneleko biribilguneraino, itxita egongo da trafiko mota ororentzat.

Lartzabal, Gabierrota, Fanderia, Erdigunea, Etxeberrieta, Olibet eta Iztieta auzoetan, lasterketa bertatik pasatuko dela-eta, eraginen bat edo beste izango dute.

Lartzabaleko bizilagunak:

- **Auzotik irteteko,** GI-2132 erabili ahal izango da:
 - Oiartzun aldera joateko, GI-2134 errepidean zehar
 - AP 8-tik
 - Donostia, Irun, Frantzia, Hernani eta abar
 - Hernani, GI-2132 errepidean zehar
 - Errenteria aldera:
 - Erdigunera: Jorge Oteiza, Egiburu Berri, Pontikan barrena
 - Kasko Historikora: Fanderian zehar, Santa Klara biribilgunea.
- **Aparkalekuak**
 - Nafarroa hiribideko aparkalekuak, Lartzabal eta Gabierrota biribilguneen artean, azaroaren 7tik (larunbata) 18:00etatik aurrera eliminatu egingo dira

Arraguako bizilagunak:

- Auzotik Lartzabal biribilgunearen barrena atera beharko da. Bideartean norabide aldaketa egin beharko da auzotik atera ahal izateko.

Gabierrotako bizilagunak

Auzoa erabat itxita geratuko da, edozein garraibide erabiltzeari dagokionez:

- Motozikleta, ziklomotore eta bizikletak izan ezik, horiek Fanderiako auzoa komunikatzen duten bi zubiak erabili ahal izango baitituzte.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonak (minusbaliatuak eta abar): baimena emango da Touring etorbidean barrena Fanderia auzotik sartzeko, Komisariaren aurreko bidegorrian eta Gabierrota pasealekuaren barrena.
- **Errenteriako Erdigunera:**
 - Erdigunera: Jorge Oteiza, Egiburuberri, Pontikan barrena
 - Kasko Historikora: Fanderia, Rotonda Santa Clara biribilgunetik.
- **Aparkalekuak**
 - Bizilagunek alde zuzenetik aurreikusitako beharko dute ibilgailua behar duten, Fanderian aparkatuta.
 - Lartzabal eta Gabierrota biribilgune eta Santa Klara (Matxain) eta Gabierrota biribilgune bitarteko Nafarroa hiribidearen zatian ez da ibilgailurik egongo larunbateko 18:00etatik aurrera.

Fanderiako bizilagunak

Touring etorbidean barrena Santa Klara biribilguneranzko sarrera ezin izango da Garcia Lorcatik egin. Alternatiba gisa, Jorge Oteizatik, Agustinak auzoan barrena, egin ahal izango da.

Kasko Historiko eta Erdiguneko bizilagunak

- Kasko Historikora Agustinetan barrena edo Erdigunetik (Pontika, Alaberga, eta abar) sartu beharko da
- Anbulatoriora, San Jose Langilea Elizara edo Iztieta sartzeko, Merkataritza zentroko aparkalekua erabiliko da.
- Garraibide publikoak hartzeko, sarbide beretik, Altamirako biribilguneraino, Ekialdebus eta Renfe garraibideak erabiltzeko.



- Nafarroa hiribideko taxi geltokia Biteri kalera aldatuko da, M^a Carmen loradendaren parera.
- Fanderiara Tomas Lopez kaletik sartu beharko da. Biribilgune erdia irekia egongo da zirkulaziorako (beste erdia lasterketarako gordeko da).
- Fernandez de Landako irteera trafikorako itxita egongo da

Iztietako bizilagunak

- Iztieta, beti bezala, Donostia kaletik sartu beharko da.
- Irun kalean Nafarroa hiribiderako sarbidea itxiko da.
- Auzotik ateratzeko Iztieta pasalekuan irteera bat prestatuko da Lezo aldera, eta Oiartzun kalean barrena egingo da.
- Udaltzaingoa bulego mugikorra (furgoneta) jarriko du auzoan, probak irauten duen bitartean.
- Erdigunera sartzeko, Merkataritza Zentroko aparkalekuaren sarbidea erabiliko da (eskailera eta aparkalekua).

APARKALEKUA

FANDERIA

- Kirol eremuko tenis zelaia aparkaleku gisa egokituko da, azaroaren 7ko eguerditik (larunbata) azaroaren 8ko 18:00etara (igandea).

PAPRESA

- Papresa aparkaleku gisa egokituko da, azaroaren 7ko eguerditik (larunbata) azaroaren 8ko 18:00etara (igandea).

GARRAIO PUBLIKOA

URBANOA

- Datorren igandean, azaroak 8, Behobia-Donostia lasterketa izango dela eta, U7 eta U1 lineetako ibilbideetan aldaketak egongo dira 10:50etik 14:10era, gutxi gorabehera:
- U7 lineako hurrengo geltokiak ezabatuko dira: Galtzarabordako polikiroldegia, Nafarroa etorbidea, Touring etorbidea, fanderia 17, Erramun Astibia eta Resurreccion Maria de Azkue.

HIRIARTEKOA)

Jarraian azaltzen diren ordutegiaren aldaketak lasterketaren antolatzaileek ezarritakoaren arabera aurreikusi dira, hortaz Ekialdebus ez da hauen arduraduna. Irteeren, igarotzeen eta iritsieren ordutegiak gutxi gorabeherakoak dira eta lasterketaren antolatzaileek ezartzen dituzten trafiko-mozketen menpe daude.

- **E01, E02 eta E27.**
 - 09:15etik 15:00etara, gutxi gorabehera, hurrengo geltokiak ezabatuko dira (bi norabideetan):
 - ARRAGUA, LARTZABAL, GABIERROTA, ZUMARDIA, IZTIETA, KAPUTXINOAK, PASASI ANTXO, BUENAVISTA, HERRERA, JOSE ELOSEGI, MIRAKRUZ GAINA, ATEGORRIETA, NAFARROA ETORBIDEA ETA ZURRIOLA
 - Behin-behineko geltoki bat jarriko da Altamirako biribilgunean (saihesbidea baino lehenagoko desbideratzean).
- **E27 HONDARRIBIA - IRUN - DONOSTIA**
 - Goizean, trafiko-mozketa baino lehenagoko azkeneko zerbitzua autobusa pasako den azkeneko gutxi gora beherako ordutegia:
 - 09:10ean Irundik (Gipuzkoa hiribidea, 6) Donostiara
 - Zerbitzua ahal den lasterren berrezarriko dugu.
 - Trafiko-mozketak irauten duen bitartean linea honen lehenengo eta azkeneko geltokia HONDARRIBIA Kalean (Gurutze gorria) izango da.



Aipatutako gune horietako **bizilagunek ibilgailua erabili nahi baldin badute, Udaltzaingoaren agenteen, Babes Zibileko boluntarioen eta lasterketaren antolatzaileen oharrak** jarraitu beharko dituzte, lasterketak hartuko dituen zona horietatik atera ahal izateko.

Oro har, **gomendatzen da** Iztieta eta Gabierrotan **ibilgailu partikularrak ez erabiltzea**. Lasterketaren ibilbide osoan dauden biribilguneak Udaltzaingoa eta Babes Zibileko boluntarioek kontrolatuko dituzte.

Edozein zalantza argitu nahi izanez gero, jarri harremanetan Udaltzaingoarekin 943 344343 telefono zenbakian edo udaltzaingoa-policialocal@errenteria.eus helbidera mezua bidalita.